

### WILLIAM SHAKESPEARE GUREAN

Data baten harian izen handi bat datorkigu oraingoan: William Shakespeare (Erresuma Batua, 1564-1616). Hil zeneko laugarren mendeurrena aurtan. Aireko uhinen nahiz idatzizko letren bidez jakin dugu efemeride horren berri eta geurera ekarri nahi izan dugu era labur eta xumean, eta bide batez hartaz gurean egon daitekeenari erreparatu pixka bat.

Izan ere, gure mundutxo honi dagokionez, William Shakespearek izan du gurean oihartzuna aurreko belaunaldietan: Ze-anuriko seme batek, Benito Larrakoetxeak, ekarri digu euskara haren teatro-lan osoa. Itzuliko naiz pixka bat zehazkiago arratiar honen lanera, baina orain hurbil nadin gure poeta eta teatrogile gorenagana.

#### **Biografiaren harian**

Stratford-upon-Avon hirian jaio zen, 1564ko apirilean. John Shakespeare eta Mary Ardenen zortzi seme-alabetatik hirugarrena. Aita artile-merkatari eta harakin aberats bat zen, udalean goi-mailako estatusa zuena, eta ama ere, jatorriz, handikietakoa.

Jaiotzaren egunik ez dakigu ziur. Bataioko agiria dugu soilik, apirilaren 26an bataiatu zela dioena; beraz, egun batzuk lehenago jaioko zela esan dezakegu. Ez astebete baino lehenago, orduko ohitura kontuan izanik. Tradizioak apirilaren 23an, san Jurgi egunean, finkatu zuen haren jaiotza; behar bada, heriotzako dataz berdintzearren, 1616ko apirilaren 23an hil baitzen, baina ez dago agiririk jaiotzako data hori ziurtatzen duenik.

Shakespeareren aita, William jaio zenean oparotasunaren aparretan zena, behera etorri zen handik laster batera. Hots txarrak atera zituen, bidegabekeriazko artilearen salerosketaz salatu baitzuten. Horrela galdu zituen udalean zituen kargua eta estatusa. Beste batzuek diotenaren arabera, ordea, erlijio-jazarpenaren biktima izan zitekeen, familia bi aldeetatik fede katolikokoa zelako, eta anglikanismoa ez zen oro gobernuak desegin eta galdu nahi zuelako.

Oso argibide gutxi dago haren haurtzaroaz; argibide ziurrik ia bat ere ez. Uste da jaioterriko *Grammar School*-ean egingo zituela lehen ikasketak. Ikasketa horiek, Espainian XVI. mendean egin ohi ziren gramatika-ikasketen edota oraingo batxilerraren parekoak dira. Haren adiskide batek, Ben Johnson teatrogile eta idazleak, gauzak pixka bat gehituz zioenez, ez zen ikastun hoberenetakoa... Latin gutxi ikasi zuela, dio lekuko honek, eta grekoa oraindik gutxiago. Ustez, goizegi utzi behar izan zuen eskola, haren aita krisi larrian zegoelako, ekonomia aldetik nahiz karrera politiko aldetik, gainbeheran sarturik.


Dena dela, beti hartu izan da Shakespeare kulturaz ongi jantzizat, baina ez goi-mailakotzat. Hortik sortu zen batzuen gan, haren izenez agertzen diren literatura-lanen benetako egilea, bera ez baina isilean edo ezkutuan geratu nahi zuen beste norbait izan daitekeelako susmoa. Hezur-mamizkoegia ikusten zuten hura, beste edozeinen antzekoegia, halako obra

W. SHAKESPEARE

1

EUSKERAZ

KARDABERAZ



KOMEDIAK-D

LARROKOETXEA'TAR B.

miresgarriaren aita izateko, jenio baten obra baitzen hura. Aldeak alde, beste bati lehenago bere herritarrekin gertatu zitzaiona: hain ongi hitz egiten entzunik, esaten zuten: *Ez al da hau Arotzaren semea?* Eta duda-mudatan geratzen ziren, agerian zutena sinetsi ezinik edo sinetsi nahi ez zutelara... Shakespeare buruzko susmo hura oraindik gehiago indartzeko, beraren gutun eta idazki pertsonalik ere ez da gordetzen eta horrek bide eman die era guztietako asmakeriei, askotan inbidiak eragindakoei. Izan ere, dirudienez, poema eta teatro lanak izan ezik, ez zuen besterik idatzi; bera hobeki ezagutaraztekorik ez, behintzat. Horregatik haren bizitza pribatua misterio antzekoz inguratua ageri zaigu, baina ez beraren izeneko obra miresgarrien autoretza, hori gaur egun inork ez baitu zalantzan jartzen.

1582ko azaroaren 28an, 18 urte zituela, William Shakespeare ezkondu egin zen bera baino 8 urte zaharragoa zen Anne Hathaway-rekin. Temple Grafton hiriko alaba zen hau, Stratford hiritik hurbil dena. Lekuko batzuek ziotenez, presazko ezkontza izan zen, Anne hiru hilabeteko haurdun baitzegoen. Ezkondu ondoren ez dago Williamen lorratzik erregistro historikoetan, harik eta Londresko agertokietan agertzen hasi zen arte. 1583ko maiatzaren 26an bataiatu zuten Stratford-en Susanna, bikotearen alaba zaharrena. Pixka bat geroago, 1585eko otsailaren 2an, bataiatu zituzten Hamnet semea eta Judith beste alaba, neba-arreba bikiak. Hamnet mutikoa hamaika urte zituela hil zen eta bi alabak bakarrik iritsi ziren adin heldura. Idazlearen testamentua kontuan hartzen badugu, badirudi pixka bat gutxietsi egiten zuela bere emaztea, Anne, eta ez zirela hain ongi etortzen elkarrekin.

1580ko hamarkadako azken urteak teatrogilearen urte galdutzat jotzen dira, ez dagoelako argi non egon zen bitarte horretan eta zergatik aldatu zen bizitzera Stratford-etik Londresera. Sinesten zaila den legenda baten arabera, Thomas Lucy tokiko epailearen parkean oreinak ehizatzen harrapatu zuten

W. SHAKESPEARE 6

EUSKERAZ



ODOL-ANTZERKIAK-B

KARDABERAZ

LARRAKOETXEA' TAR B.

eta ihes egin behar izan zuen. Beste hipotesi batek dio, *Lord Chamberlain's Men* antzerki-taldearekin bildu zela, talde hau Strarfordt-etik igaro zenean. XVII. mendeko biografo batek, John Aubrey jaunak, idazlearen adiskide baten semearen lekukotasuna jasotzen du; hor esaten da, Shakespearek hainbat denbora (ez dakigu aldi laburra edo urteak izango ziren) herrixka bateko eskola-maisu zereginean eman zuela. Egia esan, haren hasierako urteak, poeta eta teatrogile ospetsu bihurtu arte, ez ziren inondik ere errazak izan eta hainbat ofiziotan aritu eta saiatu zela dirudi. Hala ere, ofizio gehienak teatroarekin zerikusia zutenak izango zirela uste da, teatrogile ospetsu bihurtu orduko, aktore gisa nahiko ezaguna baitzen. Dena dela, diotenez, aktore gisa lehen mailako paperik ez zuen jokatzeko.

Shakespeareren treatro-lana Londresera bizitzera joan zenean hasten da. Izen handia eman zion *Chamberlain's Men* antzerki-taldearentzat egin zuen lanak eta berehala zabaldu zen haren ospea Londresko teatrozaleen artean. *The Globe* eta *Blackfriars* antzokien jabe zen Antzerki-enpresa honek, geroago, *King's Men* izena hartu zuen. Izan ere, antzerki-talderik ospetsuenek handiki edo aberatsen baten mezenasgoa izan ohi zuten. Hortik etor daitezke halako izenak. Noizbehinka, egun izendatueta, teatro-lan hauek babesleen jauregietan antzezten ziren. Esaterako, *The King's Men* antzerki-taldeak, Jakobo I.a erregeak bere babespean hartu zuenez geroztik, gortean izaten zuen ekitaldia hilean behin. Mezenas baten babesa izatea funtsezkoa zen obraren arrakasta etorkizunean ziurtatzeko.

Teatro-lanak, hasieran, ostatuen barruko patioetan antzezten ziren. Shakespeareren garaian ere oraindik egiten ziren emanaldi batzuk ostatuetan. Baina, zarata, higienerik eza, gaixotasun eta izurriteak eragitea egozten zitzaizkien. Horregatik, hainbat eragozpen sorturik, gero eta zailagoa zen teatro-lanak ostatuetan emateko baimena lortzea. Horren ondo-

rioz, apurka-apurka, aparteko eraikinak egiten hasi ziren, hau da, teatro edo antzokiak egiten. Garai hartako lekukotasunak diotenez, hexagono edo oktogono formakoak ziren gehienak, agertokiaren erdi inguru estalirik eta beste erdia hareatza baterantz aire librean irekita zutela.

Antzerkietako aktore ofizioa ez zen ongi ordaindua; enpresen eskuetara joan ohi ziren obren eskubide guztiak; horregatik, teatro-lanek aldaketak eta egokitzapenak izaten zituzten, askotan hain luma trebeak ez zirenen eskuz eginak; are gehiago, zenbait kasutan, obrak moztu egiten ziren aktoreei hai-zeak nondik ematen zien, hau da, haien kasketaldien arabera. Autorearen izena bi edo hiru urte geroago baizik ez zen aipatzen. Horrela, idazleek beren lanen etekinaz gozatzeko aukerarik ez zuten, teatro-enpresen partaide ez baziren behintzat. Shakespearek eta beste teatrogile batzuek, enpresa haietako partaide izanik, beren artean banatzen zituzten irabaziak.

Shakespeareren teatroan hainbat nibelen inguruan biraka ibili ohi dira gertakizunak; hori du ezaugarrietako bat. Erregistroak ere askotarikoak eta aberatsak: tragikotik, komikotik eta poetikotik oparo izaten dute; mundu honetakoa eta naturaz gaindikoa, gauza erreala eta fantasiakoa... erraz gurutzatzen dira obra hauetan. Hau da, kontraste eta koska ugarikoak dira. Gizakien bizitzan bezala, denetik dago eta bortxatu gabe igarotzen da batetik bestera.

Haren teatro-lanetan bufoiak garrantzi handia izaten du, nahi zuena esateko askatasuna ematen ziolako; izan ere, erregeari edo goi-mailako pertsoneri kritika egiteak gaizki emango zukeen beste edozeinen ahotan, baina ez bufoiaren ahotan; bufoiaz baliatzen omen zen, pertsona ohoretsuek esanda debekuzkoa izan litekeena esateko...

Britaniako hiriburuan igarotako denbora, 1590etik 1613ra artekoa izan zen, gutxi gorabehera. Azken urte horretan, 1613an, idazteari utzi eta bere jaioterrira itzuli zen; han *New*

*Place* izenaz ezagutzen zen etxea erosi zuen, irabazitako dirua Londresko ondasun higiezinetan inbertitzen zuen bitartean.

### Shakespeareren obra

*Venus and Adonis* (Venus eta Adonis) poema argitaratu zuen 1593an, Londresko literaturako jendearen artean harrera ezin hobea izan zuena; hau izan zen haren lehenengoetako arrakasta. Geroko haren ekarpen poetikotik, hauek azpimarra daitezke: *The Rape of Lucrece* (Lukreziaren bortxaketa, 1594), *Sonnets* (Sonetoak, 1593-97). Maitasun gaia darabil poema hauetan guztietan, adituek diotenez, hauek bakarrik nahiko izango ziratekeen poesia anglosaxoiaren gailur-gailurrean ezartzeko.

Idazleak berak bere burua poeta eta idazle lirikotzat baliosten omen zuen gehiago, teatro-idazletzat baino.

Dena dela, teatro-idazle zen aldetik lortu zuen Shakespearrek osperik handiena bere garaian. Idatzi zitueneko eskuizkribu originalik ez denez gero, zail gertatzen da haren obren kronologia zehatza osatzea. *First Folio* izeneko liburua da horretarako iturri funtsezko eta fidagarria. Haren ekoizpen literario gehiena biltzen duen liburu hau beraren teatro-taldeko bi aktorek, John Heminges eta Henry Condell-ek, argitaratu zuten, 1623an, autorea hil eta zortzi urtera. Liburu honek Shakespeareren ekoizpena Lan historikoetan, Komeditan eta Tragedietan banatzen du eta 750 kopia egin ziren hortik. Horietatik herena iritsi da guganaino, eta gehienak ez osorik. Obra honi esker, inprimatua ez zegoen obra dramatikoaren erdia gorde izan da, Shakespearrek berak ez baitzuen erakutsi teatro-idazle ospez historiara igarotzeko desira nabarmenik.

*First Folio* liburuak teatro-lanak biltzen ditu soilik. Poema lirikorik ez. 36 teatro-lan guztira: 11 tragedia, 15 komedia eta 10 historia-lan. Ez ditu biltzen tradizioz Shakespeareren obratzat jotzen diren *Pericles* eta *The Two Noble Kinsmen* (Bi ahai-



de nobleak), ezta *The Reign of Edward* (Eduardo III.a) obra historikoa ere, 1590tik 1594ra bitartean idatzia eta izenik gabe 1596an argitaratua. Hauetatik *Pericles* obran ziurtzat jotzen da haren esku-hartzea; ez dakigu osorik berak idatzia izan zen. Gainerako biak, berriz, ez dira ziurrak. Horregatik, Shakespeareren teatro-lanen zerrenda pixka bat luzeagoa nahiz laburragoa izan daiteke; 37tik 39ra artekoa, bertsoien arabera.

Haren teatro-lana giza arimaren sentimendu, atsekabe, nahi eta irritis gartsuen laburpen ezin interesgarriago eta aberatsagoa dela esan daiteke. Lehenengo saioetan Marlowe-ren nolabaiteko eragina edo harekiko antzekotasuna erakutsi ondoren, 1600. urte aurretik argitaratu ziren “komedia alaie-tako” gehienak eta Ingalaterrako historian oinarritzen ziren hainbat drama. Garai honetako komedietan fantasia eta zentzu poetikoa azpimarratzen dira. Esaterako, *A Midsummer Night's Dream* (Udako gau bateko ametsa). Bertsoak ontzeko, hitz neurtuetarako, zuen erraztasun harrigarriak aukera ematen zion pertsonaiak hitz egiteko eragatik ongi bereizteko eta ia hizketan erabiltzen zen naturaltasunaz hizkuntza janzteko.

Historian oinarritzen ziren dramak ikusleei era jostagarrian Ingalaterrako historia irakasteko eta kultura ingelesarekiko atxikimendu eta maitasuna haiengan pizteko idatziak dira. Kontuan izan behar da ikusleetako asko eta asko analfabetoak zirela. Gehien bat erregeen bizitza kontatzen da eta obra historiko hauetan monarkiaren boterea berresten eta onesten da. Shakespeareren teatroan, Lope de Vegarenean bezala, erregea ordena publikoaren bermea da eta lurreko ongi izatea ziurtatzeko dago agintean. Argi ikusten da obra hauen helburua: era berean jostatzeko eta irakasteko dira. Beraz, helburu ludikoa eta didaktikoa dute.

Shakespearek bere idazle-ibilbidearen hasieratik idatzi zituen tragediak; goiztiarrenetakoa *Titus Andronicus* (Tito Androniko, 1593) izan zen eta urte batzuk geroago *Romeo and*

*Juliet* (Romeo eta Julieta) dator. Dena dela, osperik handiena izan zutenak 1601etik 1608ra bitartean idatziak dira: *Hamlet*; *Othelo*, *the Moor of Venice* (Otelo, Veneziako mairua); *King Lear* (Lear erregea); *Macbeth*; *Anthony and Cleopatra* (Antonio eta Kleopatra, 1607); eta hauekin beste batzuk, hain ospetsuak eta ezagunak ez zirenak, esaterako, *Timon of Athens* (Atenasko lema, 1608) eta *Troilus and Cressida*.

Bere idazle-bizitzako azken hamarkadan, 1600. urtetik aurrera, Shakespearek tragedia handiak eta “komedia ilunak” idatzi zituen. Urte horietako gai nagusiak halako gaiei dagokien ukitu jantziaz tratatzen dira, baina tragikotasuna beti sortzen da errealtatea marrazteko erabiltzen dituen xehetasunetatik edota pertsonaien izaera psikologikoa zorrozki adierazia ematetik, ikusleak haiengan ispilatua ikusten baitzuen bere burua.

Azkeneko teatro-lanetan, 1608tik aurrera, erregistroa aldatu zuen, eta tragikomedien generoan sartu zen, sarritan amaiera zoriontsuz; esaterako, *Periclesen* hala gertatzen da, azkenean bakeak egiteko bidea ikusten baita. Joera horretakoa da haren azken obra *The Tempest* (Ekaitza), 1611n lehen aldiz eman zena; horrekin itxiko zuen oihala, hau da, bere idazle-ibilbidea. Beharbada, nekaturik eta gaixorik, bi urte geroago Stratford-eko bere etxera erretiratu zen eta han hil zen 1616ko apirilaren 23an.

## **W. Shakespearen euskal letretan**

Aurreko belaunaldietan hark gure letretan oihartzuna izan zuela esan dugu sarreran. Izan ere, 1974tik 1976ra bitartean, Shakespeareren teatro-lan osoa agertu zen euskaraz. Arratiar bat, euskaltzale handia eta kemen handiagoa zuena, Benito Larrakoetxea izan genuen itzulpen-lan erraldoi hori burutu zuena. Kardaberaz bilduman argitaratu zen sei liburukitan, baina bost aletan, hirugarrena eta laugarrena ale bakarrean argitaratu baitzen. Lehenengo liburukian A. Santi Onaindiaren



*Benito Larrakoetxea*

hitzaurrea dator. Horregatik edo, itzultzaileak ez du ezartzen inolako sarrerarik eta Shakespeareren lanari ekiten dio besterik gabe. Bigarren liburukia, ordea, autorearen biografia labur batekin hasten da eta obra bakoitzaren amaieran, hiztegitxo bat gehitzen du, itzulpenean agertzen diren hitz ezezagunen edo gutxi erabilien azalpena emanez.

Lehenengo liburukian Komediak-a, 8 komedia datoz, “Eka-txa” (The tempest) deritzanaz hasi eta “Uderdiko gau-ames” (A midsummer night’s dream) izenekoaz amaiturik.

Bigarren liburukian Komediak-b, 6 komedia ezartzen ditu, “Binixa’ko saleroslea” (The merchant of Venice) deritzanaz hasi eta “Negu-ipuin” (The winter’s tale) izenekoaz amaiturik.

Hirugarren eta laugarren liburukiak ale bakarrean datozela esan dugu. Teatro-lan historiko hauen sailari Egintzak jartzen die izena. “Yon bakalduna (King John) da hemengo lehenengo obra eta “Zortzigarren Endika bakalduna” (King Henry VIII) azkenekoa.

Bosgarren liburukia itzultzailearen agur eta aupada antzeko batekin abiatzen da (“Agur, yaunak, eskerrik asko”). Zazpi tragedia datoz honetan, “Erromi ta Yuletxu” (Romeo and Juliet) deritzanaz hasten da eta “Toril eta Kerside” (Troilus and Cressida) deritzanaz amaitzen. Sail honetakoak Odol-antzerkiak-a izenaz agertzen ditu. Tragediak adierazteko darabil, antza, izen hori.

Seigarren eta azken liburukian sei drama agertzen ditu, Odol-antzerkiak-b izenaz. Lehenengo obra “Kinbelin” (Cymbeline) izanik eta azkena “Perikel Tiroko errege” (Pericles, prince of Tyre).

### **Zer esan itzulpen-lan honetaz**

Benito Larrakoetxea gizon ohoragarria da euskal letretan, merezimendu handi eta ukaezinak dituen. Pablo Anduagak *Bidegileak* sortan idatziriko hainbat pasarteri begiratu diet. Benito Larrakoetxea, urte luzez atzerrian, Argentinan, bizi izan arren, euskaltzale handia eta langile sutsua zen, erronka latzei aurre egiten zekiena. Gerra aurreko hainbat euskal idazle bikainen lankide eta mugimenduan sartua ikusten du Pablo Anduagak *Bidegileak* sortako liburuxkan. Mugimendu horretan zeuden, beste batzuen artean, Jokin Zaitegi, Gaizka Barandiaran, Santi Onaindia, Andima Ibinagabeitia, eta Larrakoetxea anaiak (Hipolito eta Benito), baita Orixe ere. “Hauen iritziz, besteak beste, literaturaren lan garrantzitsuenak euskaraz irakurtzeko ahalegin berezi bat egin behar zen batez ere uni-bertsitateari begira. Horrenbestez, Platon, Sofokles, Horazio,

Birgilio eta abar euskaratu behar ziren. Dinamika horretan, Benito Larrakoetxeak Shakespeare hautatu zuen”.

Argentinatik 1954an lehen aldiz Oñatira etorri eta berriro Ameriketara itzuli zenean hartu omen zuen Aita Larrakoetxeak W. Shakespeareren antzerki-lanak euskaratzen hasteko erabaki irmoa. 1968ra orduko idazle ingelesaren teatro-lan guztiak itzuliak zituela esaten da liburuxka horretan. Argitaratu orduko urte batzuk gehiago igaroko ziren, 1974ko eta 1976ko data baitute liburukiek. Hau dio itzultzaileak 5. liburukiaren atariko agurrean: “Olan dala, euskera yatorrez, al izan dodanik lirainen, dotoreen, txairoen eta txukunenez euskeraztu dot Shakespeare, irakurriago ta zoragarriago, atsegingarriago egiten yakun Shakespeare. Obeto ezin? Bai, arrano! Baña noiz amaitzeko? Gizonenik eztago obatu ezin leikenik”.



*Larrakoetxea hiru anaia erlijiosoak. Ezkerretik eskuinera: Benito laterandarra, eta Hipolito eta Maurizio karmeldarrak*

*Bidegileak* sortako liburuxkan badator nolabaiteko iritzia Larrakoetxeak obra honetan darabilen hizkuntzaz. Hona azpimarratu ditudan zenbait zati:

“Egia esan, ez dut uste itzulpen-lan honetan Aita Larrakoetxeak erabiltzen duen hizkuntza erraza denik irakurtzeko. Benitok sakonki ezagutzen zuen euskara. Ez dakit zenbateraino irakurri ote zuen Iparraldekoa. Baina bereziki berean, Arratiakoan, zen maisu. Eta garbi dago lokalismo ugari erabiltzen duela (...).

Ordurako Bizkaian egina zuten ahaleginen bat bertoko euskalki batu samarra moldatzeko. Baina, Benitok edo ez zuen horren berri Argentinan bizi zelako, edo jakin bazekien ere, ez zion batasun horri jaramonik egin. Arratiako euskara erabili zuen eta sarri askotan bera ere konturatzen da edonork ezingo duela hainbat hitz bereganatu eta horren lagungarri berezia ere badaki eskaintzen hiztegi baten bidez”.

Santi Onaindiak bere hitzaurrearen amaieran hau dio: “Akatsik izatekotan, norbaitzuek auxe egotzi leikeoe: lar lekukoa dala, ots, Arratiako izkeran egiña dala, euskalki guztietako itzik eta esaerarik asko dakarzan arren”. Ondorengo lefroetan, itzultzailea pixka bat zuritzearren, dio, ez dela hainbesteko alderik Euskal Herriko bazter batetik bestera, hizkuntzari dagokionez.

Euskal letretan hain merezimendu handiko gizona izanik, nik ez nuke nahi inondik ere haren izena belzterik. Bere garaikoa izan zela diot soilik, bere garaiko alde onak eta akatsak argi-argi erakusten dituena. Haren belaunaldiko beste batzuek idatzi nuena errepikatuz amaituko dut: “Mirestekoa da hain baliabide gutxirekin egin zuten lana; irudikatzen dugu zein nekagarria izan behar zuen garai hartan erabiltzen ziren hiztegi eta tresna urriekin, ordenagailurik gabe, garbizalekeriaren zama gainean zela, eta euskaldun guztien euskarara hegaldia jaso ezinik, lan hauek burutzea”.

*Luis Baraiazarra Txertudi*